

*EUSKO JAURLARITZAREN, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA LABAYRU IKASTEGIAREN ARTEKO
ESPARRU-HITZARMENA (2016-2019)*

Egun on guztioi

Baztarrika jaunak esan du: elkarlana beti da pozgarria. Gaurkoan Herri aginteak elkar hartuta, publiko-pribatu elkar hartuta, denok euskararen mesedetan, denok herritarren mesedetan.

Bizkaiko Foru Aldudian argi izan dugu eta dugu Labayru Fundazioa eragile estrategikoa dela euskal kulturaren adierazpide berezkoenetan. Euskara eta Kultura Saila beti agertu da prest, Labayru Ikastegitik lehenago eta Fundaziotik orain, jaso izan dituen hamaikatxo egitasmo, ekimen eta lan bultzatu eta laguntzeko. Eta horien artean, aparteko babesa eman zaie euskararekin loturiko proiektuei.

Labayruren jardunbidea, baina, Bizkaitik kanpora ere heltzen da, noski. Euskal lurralde guztietara zabaldu da, Bizkaian bereziki errotua izan arren. Utziko didazue aldarrikatzen Labayruren lana ez dela Bizkaitik Bizkaira begirakoa, Bizkaian erroturik egon arren euskararen eta euskal kulturaren eremu osoari begirakoa da. Bizkaian du egoitza baina adarrak euskararen eremu osoan, eragina eta ekarpena esan bezala euskararen eta euskal kulturaren eremu osorakoa da. Nik gaur hori aitortu nahi diet eta indarrean jarri eginiko ahalegina.

Gauza bera esan dezakegu euskararen ikuspegitik ere, bizkaieraren jagole nagusia dela aitortzen bada ere, euskara batuaren berebiziko hornitzaile eta eragilea ere badela esan beharra dago. Eta bat egiten dut

hontan ere aurretik esandakoarekin, ez da bata ala bestea, biak baizik, euskalkiak ez baitu batua elikatu eta aberastu besterik egiten. Biak behar ditu euskarak, biak dira euskara, eta biak osasuntsu behar ditugu euskarak aurrera egin eta hegoak astintzea nahi baditugu.

Hortxe kokatu behar dugu gaur hemen aurkezten ari garen Hitzarmena, elkarlanaren klabea, bizikidetzarenean, txantxangorriak bezala euskarari hegoak astintzeko bide emate klabea, guztiok elkarrekin urrunago helduko garelako, guztiok koordinaturik gehiago hartzen dugulako hegoean, guztiok batak bestearena aitortuz eta balioztatuz bideak erraztuko dizkiogulako gure hizkuntzari nahi duen tokira hegan egin dezan. Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera, Euskadiko Autonomia Erkidegoko erakunde nagusiak, hau da, Eusko Jaurlaritzak, eta Labayru Fundazioak sinatu duguna; hurrengo lau urteetan ere, aurrekoetan bezala, gure hizkuntzaren sustapenean eta garapenean aurrerapausuak ematen jarraitzeko funtsezkoa den lankidetzaren eta elkarlanari bide emango diona. Aspalditik dator harreman hau eta oparoa izan daitela datozen urteetan ere.

Hitzarmen honen bidez, akordioaren oinarriak ezarri dira, hiru erakundeen artean Bizkaiko eta Euskadiko euskararen aldeko lan bateratua bultzatzeko hurrengo lau urteetan zehar.

La Diputación Foral de Bizkaia, Gobierno Vasco y Labayru consideramos necesario impulsar medidas que redunden en apoyar todo tipo de iniciativas y actividades que impulsen y fomenten el euskera, en este

reto cumple un papel importante la Fundación Labayru y por ello hemos firmado este convenio de colaboración, con el objetivo fundamental de garantizar la actividad de esta institución académica.

Mediante este convenio establecemos nuevamente las bases de acuerdo que regulará e impulsará, en los próximos cuatro años, el trabajo conjunto de las tres instituciones en favor del euskera.

Para el Departamento de Euskera y Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, es un compromiso de colaboración de gran trascendencia, porque posibilitamos que esta comunidad de investigadores, Fundación Labayru, desarrolle su trabajo con total garantía y tranquilidad. Su fructífero trabajo ha aportado siempre, y estamos plenamente convencidos de que seguirá aportando, grandes beneficios para el euskera y para nuestra cultura. Beneficios para el Territorio Histórico de Bizkaia en particular, y para Euskadi en general.

En los cuatro años de vigencia del convenio que hoy hemos firmado, Labayru va a llevar a cabo diversos e importantes trabajos.

Además, entendemos que su aportación tanto para el afianzamiento del modelo estandarizado del euskera vizcaíno como para el enriquecimiento del batua es fundamental.

Labayru Fundazioak berriro hartzen du konpromisoa, lan eta ikerketa bereziak egiteko eta Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak hori

babestu eta bultzatu egiten dugu lan horiek finantzatuz beste lau urtetan.

Labayru azpiegitura estrategikoa da, bai Bizkaian, bai Euskadin, euskarari dagokionez. Labayru es una infraestructura fundamental no solo de Bizkaia, como algunos puedan pensar, sino de todo el ámbito geográfico del euskera y la cultura vasca. Aprovecho pues para reconocer y poner en valor esa especificidad a menudo no reconocida de Labayru. Besteak beste, Fundazio honek euskara aurrera eramateko herri-literatura landu egin du eta bizkaieraren normalkuntzan ikaragarritzko lana egin du. A muchos nos han ayudado a afianzar el interés, el conocimiento y el compromiso hacia el euskera y la cultura vasca.

Eskerrik asko beraz, egin dozuen eta egiten ari zarien lanagatik.